

**2023KO MAIATZAREN 2AN EGINDAKO  
EZ-OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Goizeko 8:45etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2023ko maiatzaren 2an goizeko 8:45etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko EZ-OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- FORU ALDUNDIKO ETA UDAL HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETAKA.**

Ida\_Celec aplikazio informatikoa erabiliz zozketatu dira A eta B mahaiak. Bakoitzean titularrak eta ordezkioak aukeratuak izan dira.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du goizeko 9:00tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**